


**IGELDOKO PROBALEKUA**  
F MAILA

**IGELDO PLAZA, Z.G.**



**Egile eta data ezezagunak**

**Deskribapena**

Igeldoko plazan dago, antzinako eskolen eraikinaren aurrean. Gutxi gorabehera 30 metro luze eta 5 metro zabal da. Lurzorutik zertxobait irteten diren errekarriez konfiguraturata dago eta hainbat sekziotan banatzen duten lineak ditu. Alboetan, demarako erabiltzen diren hainbat tamaina, forma eta pisuko harriak gordetzen edo biltzen dira.

**Babes erregimena**

- 1.- Erregimen orokorra:  
Plan Berezi honen F babes mailan sartzearekin loturikoa.
- 2.- Berriazko erregimena.
  - A.- Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: hurrengo ataletan azaldutako irizpideen eraginpean ez dauden elementuak.
  - B. Elementu edo zati iraunkorrak: hurrengo C atalean aditzera ematen diren jardun irizpideekin lotzen direnak.
  - C. Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk:
    - \* Probalekua babesten da, espazio publiko urbanizaturata den aldetik, herri kiroleko demetara zuzentzen den espazio baten berezko jarraibideen arabera.
    - \* Espazio horretan zein haren ingurunean proiektatzen eta gauzatzen diren jardunek izaera horretako herri kiroletako espazio baten berezko jarraibideak errespetatu beharko ditu.